Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko martxoaren 6a, astelehena — 44 — Lunes, a 6 de marzo de 2023

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*Talentudunak erakartzeko eta eusteko Fellows Gipuzkoa programako dirulaguntzen 2023ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2023ko otsailaren 14an:

Pertsonak dira ikerketaren oinarrietako bat. Prestakuntzarik, talenturik eta motibaziorik gabeko pertsonarik gabe, ezin dira lortu Gipuzkoarentzat arlo honetan lortu nahi diren helburuak, eta helburu horiek ez lortzeak ikerketa-bikaintasun horren aintzatespenik ez izatea baino askoz gehiago esan nahi du gure enpresen lehiakortasuna indartuko duten berrikuntza-helburuak ez lortzea, enpresa berriak sortzea, produktu berriak garatzea, terapia berriak sortzea, pertsonen bizi-baldintzak hobetzea edo gure ingurunea bizitzeko leku hobea izatea. Ikerketa da etorkizuneko erronkei heltzeko oinarria.

Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak Fellows Gipuzkoa programa jarri du abian 2016az geroztik, Gipuzkoa Talent estrategiaren esparruan. Programa horrek talentua erakarri, sortu eta eustean jartzen du arreta, talentu ikertzailera bideratuta. Programa honek beren arloan nazioarteko garrantzia duten ikerketa-taldeetan prestakuntza jaso duten eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Gipuzkoako zentroetan sartzen edo handik itzultzen diren ikertzaileak sartzea finantzatzen du.

Programaren azken helburua pertsona horiek Gipuzkoan jarraitzea da, eta, horregatik, hiru urtez jarraitzeko aukera eskaintzen zaie. Gainera, Gipuzkoako programa honi heltzen dioten pertsonek programaren amaieratik aurrera jarraipena izan dezaten errazteko, akordio bat lortu da Ikerbasque Fundazioarekin, Fellows Gipuzkoa ikertzaile gisa bigarren urtearen ondoren ebaluatzeko. Horrela, ebaluazioa positiboa bada, ikertzailea Ikerbasque Fundazioaren programa honetan sar daiteke, Fellows Gipuzkoa gisa hirugarren urtea amaitu ondoren.

Fellows Gipuzkoa Programak talentua erakartzen eta eusten laguntzen du, eraiki nahi den etorkizuneko erronkei erantzuteko. Horregatik, jarduera horri jarraipena eman nahi zaio beste deialdi baten bidez.

Dirulaguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude. Hala ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2022 Foru Arauaren arabera eguneratu ahal izango da.

2023ko deialdian 2016ko apirilaren 19an Diputatuen Kontseiluak onartutako oinarri arautzaileak aplikatuko dira (2016ko apirilaren 22ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 75 zk. 2016ko apirilaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN zuzendutakoak, 80 zk.).

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Convocatoria de 2023 del programa de ayudas Fellows Gipuzkoa de atracción y retención de talento.*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 14 de febrero de 2023:

Uno de los pilares que fundamentan la investigación son las personas. Sin personas con formación, con talento, motivadas, no es posible conseguir los objetivos que se pretenden para Gipuzkoa en este ámbito, y el no alcanzarlos supone mucho más que no tener un reconocimiento a esa excelencia investigadora, implica no alcanzar los objetivos de innovación que reforzarán la competitividad de nuestras empresas, no lograr los objetivos de crear nuevas empresas, desarrollar nuevos productos, generar nuevas terapias, mejorar las condiciones de vida de las personas o hacer de nuestro entorno un lugar mejor para vivir. La investigación es la base para abordar los retos del futuro.

Por ello la Diputación Foral de Gipuzkoa desde 2016, ha puesto en marcha el programa Fellows Gipuzkoa, en el marco de la estrategia Gipuzkoa Talent que pone el foco en atraer, generar y retener talento, y orientado al talento investigador. Este Programa financia la incorporación de personal investigador que, habiendo tenido una formación en grupos de investigación de relevancia internacional en su área, se integren o regresen a centros guipuzcoanos de la Red vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

El objetivo final del Programa es que estas personas permanezcan en Gipuzkoa, y por ello, se les ofrece la posibilidad de continuar a lo largo de un total de tres años. Además, para facilitar que las personas que se acojan a este Programa guipuzcoano puedan tener una continuidad más allá de la finalización del mismo, se ha llegado a un acuerdo con la colaboración de la Fundación Ikerbasque, para su evaluación después de la segunda anualidad como persona investigadora Fellows Gipuzkoa. De esta manera, si la evaluación es positiva, la persona investigadora podría incorporarse a este Programa de la Fundación Ikerbasque, una vez finalizado su tercer año como Fellows Gipuzkoa.

El Programa Fellows Gipuzkoa contribuye a la atracción y retención del talento que se necesita para dar respuesta a los retos del futuro que se quiere construir. Por ello, se pretende dar continuidad a esta actuación a través de una nueva convocatoria.

Estas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES) de la Diputación Foral de Gipuzkoa, sin perjuicio de su actualización conforme a la Norma Foral 6/2022, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2023.

En la convocatoria de 2023 se aplicarán las bases reguladoras aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 19 de abril de 2016 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 75, de 22 de abril de 2016, corregidas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 80, de 29 de abril de 2016).

EK\CV GAO-I-2023-01281

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea talentudunak erakartzeko eta eusteko Fellows Gipuzkoa programako dirulaguntzen 2023ko deialdia, erabaki honen eranskinean jasota dagoena.

*Bigarren.* 480.000 euroko gastua baimentzea deialdi hau gauzatzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako kontu sail hauen kargura:

1.0420.200.781.00.04.2023: 240.000 €.

5.0420.200.781.00.04.2024: 240.000 €.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

Donostia, 2023ko otsailaren 21a.—Segundo Díez Molinero, Departamentuko idazkari teknikoa. (1281)

ERANSKINA

*Talentudunak erakartzeko eta eusteko Fellows Gipuzkoa programaren 2023ko deialdia.*

1. *Helburua.*

2023ko deialdia egitea hautapen prozedura bidez nazioarte mailan garrantzia duten ikerketa taldeetan doktoratu osteko formazioa jaso duten ikertzaileak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen Gipuzkoako zentroetan sartzen laguntzeko, 2016ko apirilaren 19an Diputatuen Kontseiluak dirulaguntza hauek emateko onartutako oinarri arautzaileen arabera (2016ko apirilaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 75 zk. 2016ko apirilaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zuzenduta, 80 zk.).

2. *Finantzaketa.*

2.1. Deialdi honen gastu osoa 480.000 eurokoa da, eta Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren 2023ko ekitaldiko aurrekontuko ondorengo kontu sail hauen kargura emango da:

1.0420.200.781.00.04.2023: 240.000,00 €.

5.0420.200.781.00.04.2024: 240.000,00 €.

2.2. Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Kopuru gehigarria eraginkorra

Por todo ello, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar la convocatoria de 2023 de las subvenciones del programa Fellows Gipuzkoa de atracción y retención de talento, que se acompaña como anexo al presente acuerdo.

*Segundo.* Autorizar un gasto por importe de 480.000 euros para hacer frente a esta convocatoria con cargo a las siguientes partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

1.0420.200.781.00.04.2023: 240.000 €.

5.0420.200.781.00.04.2024: 240.000 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 21 de febrero de 2023.—El secretario técnico del Departamento, Segundo Díez Molinero. (1281)

ANEXO

*Convocatoria de 2023 del programa Fellows Gipuzkoa de atracción y retención de talento.*

1. *Objeto.*

Convocar para el año 2023 en régimen de concurrencia competitiva, las subvenciones para apoyar la incorporación de personas investigadoras, que hayan disfrutado de una formación postdoctoral en grupos de investigación de relevancia internacional, a centros guipuzcoanos de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, de acuerdo con lo previsto en el acuerdo de Gobierno Foral de 19 de abril de 2016, por el que se establecen las bases reguladoras para la concesión de dichas subvenciones (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 75, de 22 de abril de 2016, corregidas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 80, de 29 de abril de 2016).

2. *Financiación.*

2.1. El gasto total en la presente convocatoria asciende a 480.000 euros, con cargo a las siguientes partidas del ejercicio 2023 del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural:

1.0420.200.781.00.04.2023: 240.000,00 €.

5.0420.200.781.00.04.2024: 240.000,00 €.

2.2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a

EK\CV GAO-I-2023-01281

izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

*3. Eskaerak aurkezteko epea eta baldintzak.*

3.1. Entitateek eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte, laguntzen programaren bigarren oinarrian zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

3.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2023ko martxoaren 29an bukatuko da, 13:00etan.

*4. Jarduerak hasteko epea.*

Talentudunak erakartzeko jarduerak diruz laguntzeko eskaera aurkezten denetik aurrera hasi beharko dira.

Talentudunei eusteko jarduerak diruz laguntzeko berriz, aurreko deialdiko erakartzeko edo eusteko jardueraren bukaera egunetik aurrera hasiko dira.

*5. Jarduera gauzatzeko epea.*

Ikerlari bakoitzaren kontratazio gastuak urte betez diruz lagunduko dira, 8.3 oinarrian jarritako zenbatekoak kontuan hartuz.

Subentzionatutako jarduerak 2024ko irailaren 30a baino lehen bukatuko dira.

*6. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.*

Eskaerarekin batera, eranskinean dagoen ereduari jarraituz, honako agiriak aurkeztu behar dira:

a) Erantzukizun aitorpena, eranskinean edo bide telematikoz egindako eskaeran dagoen ereduari jarraituz, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko ezein debekurik ez izatearena.

b) Eskatzaileak edozein administraziori edo estatu zein nazioarte mailako entitate publiko nahiz pribaturi eskatutako edo haiengandik eskuratutako dirulaguntzen, sarreren edo baliabideen adierazpena, eskatutakoekin bateraezinak diren dirulaguntzak jasotzen dituena.

c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean egiaztatuta egotearen zuriketa.

d) Entitateak dirulaguntza eskatzen dueneko denboraldian, ikertzailea kontratatzeko aurreikusitako aurrekontua.

Talentudunak erakartzeko jarduerentzat gainera:

— Kontratatuko den ikertzailearen CVa, 6.1.a) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituena.

— Ikertzailea sartuko den edo sartuta dagoen ikerketa taldeak egingo duen lanaren memoria, 6.1.b) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituena.

— Ikertzailea sartuko den edo sartuta dagoen ikerketa taldearen memoria, 6.1.c) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituena.

— Dirulaguntza eskatzen duen entitatearen memoria, 6.1.d) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituena.

Talentudunak eusteko jarduerentzat, a), b), c) eta d) ataletan adierazitakoaz gain:

— Aurretiko epean egindako lanaren memoria.

— Entitateak dirulaguntza eskatzen dueneko denboraldian lanaren memoria.

una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*3. Plazo de presentación y requisitos de las solicitudes.*

3.1. Podrán presentar solicitud aquellas entidades que cumplan los requisitos previstos en la base 2.ª del programa de ayudas.

3.2. El plazo de presentación de solicitudes se iniciará al día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de la presente convocatoria y finalizará el día 29 de marzo de 2023 a las 13:00 horas.

*4. Plazo de inicio de la actuación.*

Las actuaciones de atracción de talento a subvencionar se iniciarán a partir de la fecha de presentación de la solicitud.

Las actuaciones de retención de talento a subvencionar se iniciarán a partir de la fecha de finalización de la actuación de atracción o retención subvencionada en la convocatoria anterior.

*5. Plazo de ejecución de la actuación.*

En esta convocatoria se subvencionarán los gastos de contratación de cada persona investigadora, con los límites establecidos en la base 8.3 durante un año.

Las actuaciones subvencionadas se concluirán antes del 30 de septiembre de 2024.

*6. Documentación a presentar con la solicitud.*

Junto con la solicitud, de acuerdo con el modelo que se incluye en el anexo, se presentará la siguiente documentación:

a) Declaración responsable, conforme al modelo que se incluye en el anexo o en la solicitud telemática, de no hallarse incursa en cualesquiera de las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

b) Declaración de las subvenciones, ingresos o recursos que la entidad solicitante hubiese solicitado u obtenido para la misma finalidad, procedente de cualquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, indicando las subvenciones que resulten incompatibles con las solicitadas.

c) Justificación de la acreditación en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

d) Presupuesto previsto para la contratación de la persona investigadora en el periodo para el que se solicita.

Además, para las actuaciones de atracción de talento:

— CV de la persona investigadora a contratar en el que se detallen los aspectos a valorar según la base 6.1.a).

— Memoria del trabajo que tiene previsto realizar el grupo de investigación en el que se integrará o esté integrada la persona investigadora, en la que se detallen los aspectos a valorar según la base 6.1.b).

— Memoria del grupo de investigación en el que se integrará o está integrada la persona investigadora, en la que se detallen los aspectos a valorar según la base 6.1.c).

— Memoria de la entidad que solicita la ayuda, en la que se detallen los aspectos a valorar según la base 6.1.d).

Para las actuaciones de retención de talento, además de la documentación señalada en los apartados a), b), c) y d):

— Memoria del trabajo realizado en el periodo anterior.

— Memoria del trabajo a realizarse en el periodo para el que se solicita la ayuda.

EK\CV GAO-I-2023-01281

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

Eskaeran berariaz adierazi ahal izango dute egiaztapen automatikoaren aurka daudela; kasu horretan, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako organo administratiboek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

*7. Eskaerak erabakitzeko epea eta jakinarazpena.*

Dirulaguntza emateko ala ukatzeko ebazpena eta horren jakinarazpena egiteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita.

Ebazpena eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio; eta, horrez gain, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 17. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Onuradunak 10 eguneko epea izango du, jakinarazpenaren datatik aurrera, dirulaguntza onartzeko. Kontrakoa berariaz jakinarazten ez bada, tazituki onartutzat joko da.

Nahiz onuradun izaera eskuratzeko baldintza administratibo eta teknikoak bete, puntu gutxiago izateagatik eta aurrekontu kreditua agortzeagatik dirulaguntzarik jaso ez duten entitateek itxaron zerrendan geldituko dira, emandako dirulaguntza batzuk eraginik gabe geratuko balira onuradunek uko egiteagatik.

Deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita sei hilabeteko epean ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, eskaera ezetsi egin zaiola ulertuko da.

*8. Borondatezko itzulketa.*

Entitate onuradunak dirulaguntzaren borondatezko itzulketa egin nahi badu, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuari 16.4. oinarrian zehazten den moduan. Horrela, Departamentuak dagokion ordainketa-gutuna egingo du eta entitate onuradunari emango dio dirulaguntzaren itzulketa egiteko aukera izan dezan.

El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos; en caso de que ello no fuera posible, podrá requerirse excepcionalmente su aportación por la persona solicitante.

Podrán manifestar en la solicitud su oposición expresa a la verificación automática, en cuyo caso deberán aportar las correspondientes certificaciones expedidas por las instancias administrativas de Hacienda y Seguridad Social.

*7. Plazo de resolución de las solicitudes y notificación.*

El plazo para resolver y notificar la resolución de concesión o, en su caso, de denegación no podrá exceder de 6 meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria.

Dicha resolución se notificará a cada solicitante, sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa en los términos del artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de 10 días a partir de la fecha de notificación para aceptar la subvención que se entenderá tácitamente aceptada si no existe comunicación expresa en contrario.

Las entidades que, aun reuniendo las condiciones administrativas y técnicas para adquirir la condición de beneficiarias, no hayan obtenido subvención por tener una puntuación inferior y haberse agotado el crédito presupuestario, quedarán en lista de espera para el caso en que algunas de las subvenciones concedidas quedaran sin efecto por renuncia.

Transcurrido un plazo de seis meses, contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria, sin haberse notificado resolución expresa, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo.

*8. Devolución voluntaria.*

En el caso de que la entidad beneficiaria proceda a la devolución voluntaria de la subvención, dirigirá un escrito al diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, tal y como señala la base 16.4, a fin de que el Departamento emita la correspondiente carta de pago para que la entidad beneficiara pueda efectuar la devolución voluntaria de la subvención.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**Programa Fellows Gipuzkoa**
**Fellows Gipuzkoa Programa**

ESKAERA / SOLICITUD

| Espedientea<br>Expediente | | Data<br>Fecha | | Sarrera kodea<br>Código acceso | |
|---|---|---|---|---|---|

## ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Eskatzailearen izena<br>Nombre del solicitante** | | **Sexua<br>Sexo** | | |
| **IFZ<br>NIF** | | **Posta Kodea<br>Código Postal** | | |
| **Helbidea<br>Dirección** | | **Ataria/Solairua<br>Portal/Piso** | | |
| **Herria<br>Localidad** | | **Probintzia<br>Provincia** | | |
| **Helbide elektronikoa<br>Correo electrónico** | | **Telefonoak<br>Teléfonos** | | |
| **Kontua<br>Cta Cte.** | | **Faxa<br>Fax** | | |

## HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Pertsonaren izena<br>Nombre de la persona** | | **Sexua<br>Sexo** | | |
| **IFZ<br>NIF** | | **Posta Kodea<br>Código Postal** | | |
| **Helbidea<br>Dirección** | | **Probintzia<br>Provincia** | | |
| **Herria<br>Localidad** | | **Telefonoak<br>Teléfonos** | | |
| **Helbide elektronikoa<br>Correo electrónico** | | **Faxa<br>Fax** | | |

EK\CV GAO-I-2023-01281

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

## Onuradun izatearen aitorpena / Declaración de condición de persona beneficiaria

Aitortzen dut ez ni ezta nik ordezkatzen dudan entitatea ere ez gaudela sartuta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeratan. Aldi berean, entitatea ez dago otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak aurreikusten dituzten onuradun izateko debeku egoeraren batean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere eskumenak egikarituz, beharrezko egiaztapenak egingo ditu, zerga betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarenak beteak dituela ziurtatzeko.

☐ Ez dut baimenik ematen eskumena duten organoek laga diezaioten dirulaguntza kudeatzen duen administrazio publikoari enpresari buruzko zerga arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria.

Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de 2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La Diputación Foral de Gipuzkoa efectuará en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

☐ No autorizo para que los órganos competentes procedan a ceder a la administración pública gestora de la subvención la acreditación de cumplimiento con sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

## Datu pertsonalen tratamendua / Tratamiento de datos personales

Datu pertsonalen tratamenduak xede izango du dirulaguntzak eman, kudeatu eta haien jarraipena egiteko prozedurak izapidetzea, hala agintzen baitute 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak eta 4/2019 Foru Arauak, martxoaren 11koak, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan. Xede horren oinarri dira deialdiaren interes publikoa eta bertan parte hartzeko eskaera.

Datuak gordeko dira dirulaguntza emateko prozedura eta aurkez daitezkeen erreklamazioak izapidetzeak irauten duen bitartean.

Tratamenduaren arduradun izango da deialdia kudeatzen duen zuzendaritza nagusia, eta haren aurrean erabili ahal izango dituzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak, hari zuzendutako idatzi bidez. Datu pertsonalen tratamenduari eta eskubideen erabilerari dagokienez, harremanetan ere jar zaitezke helbide honetan: dbo@gipuzkoa.eus.

Los datos de carácter personal serán objeto de tratamiento con la finalidad de tramitar los procedimientos de concesión, gestión y seguimiento de las subvenciones, en cumplimiento de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública foral. Finalidad basada en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella.

Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.

El responsable del tratamiento será la dirección general gestora de la convocatoria, ante la cual podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, enviando un escrito dirigido al mismo. Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede también ponerse en contacto en esta dirección: dbo@gipuzkoa.eus.

## Komunikazio onartzea / Aceptación de comunicaciones

Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura.

Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correcto funcionamiento de la dirección aportada.

EK\CV GAO-I-2023-01281

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**PROIEKTU HONEK ESKATUTAKO/JASOTAKO BESTELAKO LAGUNTZAK**
**OTRAS AYUDAS SOLICITADAS/CONCEDIDAS POR EL MISMO PROYECTO**

| | Ditu<br>Tiene | | Ez ditu<br>No |
|---|---|---|---|

Entitate eskatzaileak honako diru-laguntzak jaso edota eskatu ditu, gaur arte, proiektu hori bera laguntzeko. Era berean, entitate horrek konpromisoa hartzen du herri erakunde publikoetan nahiz pribatuetan, gaurtik hasi eta proiektua amaitu bitartean, aurkezten duen diru-laguntza eskaera ororen berri emateko.

La entidad solicitante, hasta ahora, además de la presente solicitud de ayudas, ha presentado y/o recibido las siguientes ayudas por el mismo proyecto. La entidad deberá comunicar cuantas solicitudes de ayuda presente en cualquier organismo público o privado a partir de la fecha de hoy hasta finalizar el proyecto.

| Erakundea<br>Organismo | Deialdia<br>Convocatoria | Onartze data<br>Fecha de aprobacion | Zenbatekoa<br>Importe | Onartutako diru-laguntza<br>Subvención concedida |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | **GUZTIRA/ TOTAL** | | |

## PROIEKTUA / PROYECTO

**Izena**
**Denominación**

**Proiektuaren azalpena**
**Descripción proyecto**

## OHARRAK / OBSERVACIONES

EK\CV GAO-I-2023-01281

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

____________________________, 20____ko______________________(a)ren________(a)

En_________________________________a_______de___________________de 20____

Izptua. (Sinadura eta zigilua)
Fdo.: (Firma y sello)

Dokumentu hau sinatzen duenak bere gain hartzen du bertan adierazitakoaren erantzukizuna eta, orobat, dokumentuen zerrendako artxiboetan jasotako informazioarena (artxiboek CSV eta HASH kodeak dituzte).

La persona firmante se responsabiliza de lo declarado en el presente documento así como de la información contenida en los archivos relacionados en la lista de documentos identificados con sus respectivos CSV y códigos HASH

EKS kodea (Egiaztapeneko Kode Ziurra) da Gipuzkoako Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoan zaindutako artxibo bat identifikatzen duena, eta haren egiazkotasuna web orrialde honetan kontsultatzea ahalbidetzen duena:
https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/csv

El CSV (Código Seguro de Verificación) es el código que identifica un archivo custodiado en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y permite consultar su autenticidad en la siguiente dirección web:
https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/csv

HASH kodeak argi eta garbi identifikatzen du artxiboa, eta bermatzen du hura ez dela aldatu zaintzapean egon den bitartean.

El código HASH identifica inequívocamente el archivo, y garantiza que éste no ha sido alterado durante su custodia.

EK\CV GAO-I-2023-01281